


SOLUZIOAK ABENDUA

Hona hemen abenduan Euskal Herriko herri desberdinetako umeek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Itzala

Zein da izeiaren itzal zuzena?



Handienetik txikienera

Ordena itzazu iratxo hauek handienetik txikienera, eta letik 9ra hurrenez hurren. Bide batez, margo itzazu denak.




Gabonetako dominoa



Labirintoa

Katagorriak Maridomingirenganaino iritsi behar du, fruitu asko baititu saskian. Sekuentziari jarraituz, mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalen. Bide batez, lauki bakoitzeko hizkiak agertu ahala idatzi behean, eta esaera zahar bat osatuko duzu.

hurra intxaurra gaztaina ezkurra



Sudokua



Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O, eta A) dagoen tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Irudi engainagarriak



Zenbatuta dauden zatitxo hauen artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.



ALdea dago!

Erreparatu ongi bi irudiei, eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.